

HERRITARTASUN GLOBALERAKO
SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUETARAKO 2026KO
DIRULAGUNTZA-DEIALDIA

Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua





AURKIBIDEA

1. artikulua. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 3
2. atikulua. Baliabide ekonomikoak 3
3. artikulua. Deialdiaren xedea 4
4. artikulua. Deialdiaren lehentasunak 4
5. artikulua. Eskabideak zeinek aurkez ditzaketen eta zeinek ez 4
6. artikulua. Proiektuen betekizun orokorrak 5
7. artikulua. Zer-nolako gastuak egin ahal izango diren dirulaguntzaren kontura 7
8. artikulua. Dirulaguntzari egotz dakizkiokeen zeharkako kostuak 7
9. artikulua. Jarduera publikoetarako espazioak 7
10. artikulua. Eskabideak noiz aurkeztu behar diren 8
11. artikulua. Dirulaguntzak emateko eta proiektuak balioesteko prozedura 8
12. artikulua. Emango diren dirulaguntzak zehaztea 8
13. artikulua. Dirulaguntza jasotzen duen entitateak zein konpromiso hartu beharko dituen 9
14. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea 10
15. artikulua. Dirulaguntzak justifikatzea 10
16. artikulua. Deialdian zenbatekorik sobera geratuz gero 10



HERRITARTASUN GLOBALERAKO SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUETARAKO 2026KO DIRULAGUNTZA-DEIALDIA

Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua

2026ko otsailaren 27an egindako ohiko bilkuran onetsi zuen *Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak herritartasun globalerako sentsibilizazio-proiektuetarako dirulaguntzak emateko 2026ko deialdia*. Honen bidez, argitara ematenda deialdia, guztiak egon daitezen jakinaren gainean.

Hona hemen zer araubide juridiko aplikatuko den:

- 1/2023 Legea, otsailaren 20koa, Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzarakoa
- 188/2025 Errege Dekretua, martxoaren 11koa, garapen jasangarrirako lankidetzaren eta elkartasun globalaren arloko dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Orokorra, eta 887/2006 errege Dekretua, lege horren erregelamendua onesten duena.
- Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (aurrerantzean, Dirulaguntzen Ordenantza).

1. artikulua. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

1.1. Dirulaguntzen lerro hau indarrean dagoen Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen (2025-2027) Plan Estrategikoan dago jasota, haren 24_07_v01 Garapenerako Lankidetzako ekimenei eta proiektuei laguntzea izeneko fitxan.

1.2. Eta, horren bidez, helburu hau erdietsi nahi da: Garapenerako lankidetzarekin, garapen-bidean dauden herrialdeen errealitatearekin eta nazioarteko giza eskubideekin zerikusia duten sentsibilizazio- eta hezkuntza-jarduerak bultzatzea, hainbat publikorentzat.

2. artikulua. Baliabide ekonomikoak

2.1. Guztira 130.000,00 euro bideratuko dira deialdi honetara, 2025erako udal aurrekontuko 2450 2391 4 8200 "Lankidetzarako dirulaguntzak" partidaren kontura.

2.2. Gerta liteke zenbateko hori handitzea partida beraren kontura, garapenerako lankidetzarako proiektuentzako dirulaguntzen deialdian sartzen diren ataletakoren baten aurrekontu ez esleituan gerta litezkeen zenbatekoekin; horretarako, ordea, aldeztu aurretik dagokion gastu-espeditentia tramitatu behar da, esleipen-ebazpena eman aurretik eta kreditu baliagarria deialdia argitaratu zeneko hedabide berberetan argitaratu aurretik.

3. artikulua. Deialdiaren xedea

Lankidetzak —Garapenerako Lankidetzaren 2022-2025eko Gida Plan eguneratu artean luzatuaren (aurrerantzean Gida Plan luzatu) esparru estrategikoari erantzuten diotenak— kofinantzatzeko laguntzak ematea da deialdiaren xedea. Honela definitzen da misio hori: "hirian elkartasunaren, giza eskubideen eta herritartasun globalaren kultura sustatzea."



4. artikulua. Deialdiaren lehentasunak

Lehentasun hauek ezartzen dira deialdi honetarako; 2. eranskineko baremazio-taulan jaso dira balioespen-irizpideak:

- 4.1. Herritarrak sentsibilizatzeko eta hezteko ekimenak egitea, Udalak diruz lagundutako eta egun gauzatzen ari diren proiektuei lotuta, hau da, ardatz dutenak lankidetzaproiektuen gaia edo sektorea, edo zerikusia du(t)en herrialdearen edo herrialdeen testuingurua.
- 4.2. Gaiari ikuspegi lokal-globaletik heltzen dioten proiektuak, hots, maila globalean dauden desberdintasunak iraunarazten dituzten zioen inguruan gogoeta egitera animatzen duten proiektuak, ingurune hurbilean nahiz nazioartean eragiten duten problematikak jorratzen dutenak, eta herritarren artean elkartasun-jarrerak sustatzen dituztenak.
- 4.3. Gida Plan luzatuan jasotako ildo estrategikoekin eta lehentasunezko sektoreekin bat datozen gaiak dituzten proiektuak.
- 4.4. Hainbat erakundek batera kudeatu eta gauzatutako proiektuak. Jardueren plangintza eta garapena batera egingo direla frogatu beharko da, ez dela parte hartzen duen erakunde bakoitzaren ekimene batura hutsa izango.
- 4.5. Gasteizko kolektibo edo profesionalak benetan inplikatzeko dituzten eta, hartara, elkartasunaren kultura sustatzen laguntzen duten proiektuak.
- 4.6. Hiriko kolektibo eta pertsona migratzaileek entitate eskatzailearekin elkarlan aktiboan diharduten proiektuak.
- 4.7. Boluntarioen parte-hartze aktiboa duten proiektuak.
- 4.8. Kalitate-bermeak eskaintzen dituzten proiektuak —txostengileen edo lanen egile edo interpreteen izen onarengatik, esperientziarengatik, gaitasunagatik eta/edo formazioagatik)
- 4.9. Hartzaile askori edo gaitasun biderkatzailea dutenei zuzenduta daudelarik, horiengana iritsiko dela ongi bermatzen duten proiektuak.
- 4.10. Nazioarteko egunetako ekitaldietan —emakumeen kontrako edozein eratako indarkeria desagerrarazteko egunak, uraren eguna, boluntarioen eguna, giza eskubideen eguna edo beste— edo hirian lehendik errotuta dauden programazioetan —Ahalduntze Feministarako Eskolaren programazioa, Herritartasunerako Eskola Irekia, Andre Maria Zuriaren jaietako egitaraua edo kultur programazioko alternatiboko gunetakoak, kirol ekitaldietakoak eta abar— integratuta daudenak, edo, onetsiz gero, integratuko liratekeenak.

5. artikulua. Eskabideak zeinek aurkez ditzaketen eta zeinek ez

- 5.1. Entitateak bakarka zein bi entitatek edo gehiagok osatutako taldetan aurkez ditzakete eskabideak.
- 5.2. Entitateek taldean aurkezten dituzten proiektuen kasuan, partaide izateko konpromisoa sinatu beharko dute horiek, eta dirulaguntzaren kudeaketa haietako bati eskuordetzeko, taldeko buru gisa jardun dezan. Dokumentu hau eskabidearekin batera edo hura baino lehenago aurkez daiteke.
- 5.3. Irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko entitateek eskatu ahal izango dute dirulaguntza, Gasteizen duten presentzia eta jardunari eusten badiote. 1. eranskinean ageri diren irizpideen bitartez neurtuko dira presentzia eta jarduera horiek —gutxienez lau puntu lortu beharko dira irizpideetan—. 1. eranskineko dokumentazioa aldeztu aurretik —eskabidea egin aurretik— aurkeztu ahal izango da.
- 5.4. Lankidetzadeialdian 1. eranskina aurkeztu duten erakundeak salbuetsita daude 1. eranskinarekin lotutako dokumentazioa berriro aurkeztetik.
- 5.5. Entitate bakoitzak ezin izango du bi eskaeratan baino gehiagotan parte hartu, ez banaka ez besteren batekin batera.
- 5.6. Deialditik kanpo geratuko dira, berariaz, honako hauek:



- a. Arabako SEADen Lagunen Elkartea, badelako nazioarteko lankidetzarako izendun dirulaguntza bat Gasteizko Udalak emanda, zeinean jasota dauden hirian dauden herritar globalentzako sentsibilizazio- eta hezkuntza-ekintzak.
 - b. Estatuaren, autonomia-erkidegoko administrazioaren, foru-aldundien eta gainerako administrazio lokalen menpeko instituzio eta zerbitzuak.
 - c. Enpresak eta irabazi-asmoa duten bestelako entitateak.
- 5.7. Hainbat erakundek taldean aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak. Kasu horretan, honako hauek egin beharko dira:
- a. Berriaz jasotzea taldean parte hartzen duen entitate bakoitzak proiektua egikaritzeko hartutako konpromisoak.
 - b. Taldearen entitate ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatzea, dirulaguntzatik eratorritako betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituen.
 - c.
 - d. Guztiek eduki beharko dituzte beteta zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak.
 - e. Oro har, Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 9. eta 11. artikuluetan adierazitakoa bete beharko dute.

6. artikulua. Proiektuen betekizun orokorrak

- 6.1. Koherentzia. Burutuko den ekintza nahiko azalduta egotea eta erlazio koherentea egotea helburuen, emaitzen, jardueren eta proiektua gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren baliabideen artean.
- 6.2. Nagusiki Hegoaldeko herrialdeei eragiten dieten problematikak jorratu behar dituzte proiektu guztiak.
- 6.3. Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiarekin koherente izan beharko dute proiektu guztiak, esan nahi baita aitortzen dela funtsezko aktoreak direla pertsonak beren garapenean, ezen ez ondasun eta zerbitzuen hartzaile pasiboak.
- 6.4. Proiektu guztiak eduki beharko dute zeharka genero-ikuspegia, eta, horrela, jardueren diseinuan, antolaketak eta egikaritzean bermatu honako hauek, Gasteizko Udalaren Genero Berdintasunerako (2023-2030) V. Planean ezarritakoaren arabera:
 - a. Sexu eta/edo generoagatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa dakarren programa, proiektu edo jarduerarik ez sortzea.
 - b. Genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala integratzea, herritarren egoera eta premia desberdinak sistematikoki kontuan hartuta, generoaren eta beste desberdintasun-ardatz batzuen arabera desberdintasunak agerian jartzeko edo arintzeko helburu eta jarduketa espezifikoko txertatuta, eta ekintza positiboak egikaritu, hala behar balitz.
 - c. Egiten diren estatistika, inkesta eta datu-bilketetan sistematikoki sartzea sexua/generoa (emakumea/gizona/ez-bitarra) aldagaia, edo bestelako modu bat, diruz lagundutako entitateak estatistiketan, inkestetan edo datuak biltzeko beste edozein eratako tresnatan egokituz jotzen duena.
 - d. Jardueretan pertsona guztiak partaidetza aktiboa sustatzen duten estrategiak garatzea.
 - e. Diruz lagundutako programa, proiektu edo jarduerak promozionatzeko lantzen diren kartel, testu eta dokumentuetan erabiltzen diren hizkuntza eta irudiek ez-sexistak eta inklusiboak izan beharko dute, pertsonak edo pertsona-taldeak era bidezkoan irudikatzen eta generoaren edo egiturazko beste edozein desberdintasun-iturriaren arabera rola eta estereotipoak ez indartzeko.
- 6.5. Baztertuta geratuko dira ekintza hauek:
 - a. Bidezko merkataritzarekin eta kontsumo arduratsuekin lotutako ekintzak, Udalak baditu-eta izendun dirulaguntza berriazkoakt alor horretan sentsibilizazioa lantzeko.



- b. Sentsibilizazio-eduki argirik ez duten ekitaldi eta ikuskizunak.
- c. Helburutzat tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa defendatzen eta sustatzen duten eta herritartasun inklusiboaren alde egiten duten proiektuak bultzatzea eta babestea dutenak, Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuaren aniztasunaren eta giza eskubideen kulturatik abiatuta bizikidetza eraikitzeke xedearekin.

6.6. Gehienez ere proiektuaren kostu osoaren ehuneko 85eko dirulaguntza eskatu ahal izango zaio Gasteizko Udalari. Horrek esan nahi du proiektuak zenbait udal zerbitzuren dirulaguntza izango balu, Udalari eskatutako guztizko gehieneko kofinantzaketak (zerbitzu guztien ekarpenak batuta) ezin izango lukeela ehuneko 85 gainditu. Gainerako ehunekoa zein entitatek finantzatuko duten zehaztu beharko da aurrekontuan.

6.7. Eskabidearekin batera partidaz partidako eta kofinantzazailen arabera aurrekontu xehakatu bat aurkeztu beharko da, eta halaber dirulaguntzari egotzi ahal zaizkion giza baliabideetako kostuen kalkulu bat (inprimakian eskura dagoen ereduaren arabera), eta, gainera, jardueren arabera aurrekontu xehakatu bat.

6.8. Behar beste finantzaketa eduki beharko du. Udalari eskatutako dirulaguntzaren eta dagoeneko onartuta dauden beste finantzaketa batzuen baturak (adostutako ekarpen balorizatuak barne), gutxienez, urteko proiektuaren zenbateko osoaren % 75 izan beharko du.

6.9. 2026ko urtarrilaren 1etik 2027ko martxoaren 31ra bitartean gauzatu ahal izango dira dirulaguntza jasotzen duten jarduerak.

6.10. Garaiz eta behar bezala aurkezten diren eskabideak bakarrik onartuko dira. Eskabidea Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/cooperacion) eta egoitza elektronikoan (<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/es/tramites>) eskura dagoen eskabide-ereduaren arabera aurkeztu beharko da. Proposamenaren kontaketa-zatia testu-prozesadorearen formatuan aurkeztu beharko da, eta zati ekonomikoa kalkulu-orriaren formatuan.

7. artikulua. Zer-nolako gastuak egin ahal izango diren dirulaguntzaren kontura

7.1. Proiektuak egiteko beharrezko diren gastuak estali ahal izango dituzte ematen diren dirulaguntzek: giza baliabideak; proiektuaren jardueretan parte hartzen dutenen bidaia-, ostatu- eta mantenu-gastuak, garatze-bidean dauden herrialdeetako pertsonen joan-etorriak barne; materialak eta zerbitzu-kontratazioa; jarduera eta ekitaldien antolakuntzak sortutako bestelako gastuak; jardueren zabalkundea.

7.2. Giza baliabideen arloko gastuek ezingo dute izan dirulaguntzaren ehuneko 80tik gorakoak. Aurrekontuan, bereizi egin beharko dira entitate eskatzaileek kontratatutako langileei dagozkien gastuak eta kanpo-kontratazioei dagozkienak. Era berean, proiektuko jardueretan emandako orduen eta soldata kostuen arabera justifikatu beharko dira entitate eskatzaileen langile-kostuak.

7.3. Jarduera eta gastu hauetarako ezingo da dirulaguntzarik jaso: entitate eskatzailearen ohiko jardueren berri emateko buletin edo aldizkariak argitaratzea; Iparreko herrialdeetako egoiliarrek garapen-bidean dauden herrialdeetara egiten dituzten bidaiak; entitate eskatzailearen ohiko barneko batzar, jardunaldi eta mintegiak eta ebaluazioak

7.4. Diruz lagundu ahalko dira, ostera, auditoria-gastuak, betiere kostua ez bada Udalari eskatutakoaren guztirakoaren % 1 baino gehiago.

8. artikulua. Dirulaguntzari egotz dakizkiokeen zeharkako kostuak

8.1. Zeharkako kostuak edo funtzionamendu orokorrekoak dira diruz lagundutako proiektuaren jarduera zehatzei zuzenean egotzi ezin zaizkien baina proiektua egikaritzeko beharrezkoak diren gastuak. Horien barruan sartzen dira, alde batetik, proiektuaren kudeaketa, jarraipen eta administrazio orokorrari lotutako gastuak (proiektua inskribatu daitekeen programen koordinazioa barne) eta, bestetik, entitatearen beraren mantentze-gastuak (adibidez, energia elektrikoaren, telefonoaren, gasaren, uraren,



alokairuaren, garbiketaren, aholkularitzaren, informatikaren, mantentze orokorraren, segurtasunaren, gainbegiratzearen edo kontabilitatearen ordainketari lotutako gastuak, besteak beste).

8.2. Udalaren dirulaguntzari egozten zaizkion zeharkako kostuak ezingo dira izan horren ehuneko 7tik gorakoak.

9. artikulua. Jarduera publikoetarako espazioak

9.1. Nornahi iristeko moduko lokal edo espazioetan egin beharko dira Gasteizen egiten dituen jarduera publikoak, dirulaguntza jasotzekotan, Irigarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean (1997ko abenduaren 24ko EHAA) adierazten den moduan.

9.2. Udal zentroetako espazioak erreserbatzen badira, 7.11 ordenantzaren —Kultur eta biltzar ekipamenduak, ekipamendu polifuntzionalak eta gizarte-etxeak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak— 4 bis artikuluan aurreikusten den salbuespena aplikatuko da, dirulaguntza jaso duen jardueraren bat egiteko bada, eta horretarako ezarritako prozeduraren arabera. Nolanahi ere, aretoak edo baliabide teknikoak direla eta sor litezkeen gastuak aurrekontuan jaso beharko dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat jotzeko.

9.3. Espazio publikoan egitekoak diren ekintzen kasuan, dirulaguntza jasotzen duen entitateak behar den baimena eskatu beharko dio Espazio Publikoaren eta Auzoen Sailari.

10. artikulua. Eskabideak noiz aurkeztu behar diren

Eskabideak deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, 2026ko maiatzaren 06ra arte.

11. artikulua. Dirulaguntzak emateko eta proiektuak balioesteko prozedura

11.1. Lehiaketa baliatuko da prozedura gisa.

11.2. Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuko hiru teknikarik osatutako batzordeak balioetsiko ditu proiektuak. Kide horietako bat herritartasun globalerako sentsibilizazio-proiektuez arduratuko da (SG), beste bat urteko proiektu kateatuez (UK atalak), eta hirugarrena proiektu txikiez (PT).

11.3. Herritartasun globalerako sentsibilizazio-proiektuen (SG) arduraduna izango da balioespen-batzordeko lehendakaria; idazkaria, berriz, proiektu txikien (PT) arduraduna.

11.4. Proiektuei behin betiko puntuazioa eman aurretik, komenigarritzat jotzen dituen argibideak eskatu ahal izango dizkio Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak entitate eskatzaileari, eta hala jasota utziko du prozeduran.

11.5. Proposamenak 2. eranskinean jasotako baremazioaren arabera balioetsiko dira.

11.6. Eranskin horretan izartxo batez (*) markatuta ageri diren alderdiak betebehartzat jotzen dira; beraz, horietakoren batean zero puntu ateraz gero, proiektua baztertu egingo da.

11.7. Baldin eta proiektu batek guztira lortutako puntuazioa ehuneko 50etik beherakoa bada, ez du dirulaguntzarik jasoko.

11.8. Deialdi hau ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, eskabideak aurkezteko azken egunetik zenbatzen hasita. Ebazteko eta jakinarazteko ezarritako epean berariazko ebazpenik eman ez bada, dirulaguntza-eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko du eskatzaileak.

12. artikulua. Emango diren dirulaguntzak zehaztea

12.1. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, proiektuko, hau izango da:

a. 7.000,00 euro, entitate bakarrak aurkezten badu eskabidea.



b. 25.000,00 euro, bi entitate edo gehiagok taldean aurkezten badute eskabidea.

12.2. Emango den dirulaguntza zehazteko, deialdiaren arabera pertinente ez diren partida edo kontzeptuak kenduko dira eskatutako zenbatekotik, edo ezegokiak edo gehiegizkoak direnak, edo behar bezala justifikatuta ez daudenak.

12.3. Lehenetsun-hurrenkeran emango dira dirulaguntzak, lortutako puntuaren arabera, eta eman beharreko zenbatekoa murrizterik izango da, erabilgarri dagoen zenbatekoa hainbanatuz, proiektu gehigarriren bat sartzeko, kontuan izanik inolaz ere ez dela emango eskatutakoaren ehuneko 80tik beherako dirulaguntzarik.

12.4. Baldin eta ebazpenean ez badago aukerarik nahikoa puntuazioa lortu duten proiektu guztiei dirulaguntza emateko, itzarote-zerrenda sortuko da onartutako proiektuekin, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta, eta dirulaguntza gehigarriak onetsi ahal izango dira, lehenetsun-hurrenkeran, baliabiderik egokitu gero, batek dirulaguntzari uko egin diolako. Halakoetan ematen diren dirulaguntzek ezingo dute gainditu lehenengo ebazpenean ezarritako gehieneko ehuneko.

13. artikulua. Dirulaguntza jasotzen duen entitateak zein konpromiso hartu beharko dituen

13.1. Bidezkoa den guztiari dagokionez (proiektuaren publizitate-betebeharrak, euskararen erabilera, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista, berriro formulatzea, uko egitea, justifikatzea, publizitatea, proiektua aldatzea, beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna), Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean aurreikusitakoa bete beharko du dirulaguntza jasotzen duen erakundeak, eta, horrez gain, baita ondoren adierazten dena ere.

13.2. Jakinarazpena jaso ondoren hilabeteko epean gehienez, dirulaguntza jasotzen duen organizazioaren egezko ordezkariak hitzarmena sinatu beharko du Udalarekin, non jasota utziko baita zertarako izango den zehazki dirulaguntza, zein izango diren gainerako finantzaketa-iturriak, baita dirulaguntza jaso duen ekintzaren jarraipena egiteko bitartekoen zer-nolakoak eta maiztasuna ere.

13.3. Adierazpen hori izenpetzen duenari, konpromiso hauek hartuko ditu, bereziki, dirulaguntza jaso duen organizazioak:

- a. Proiektua benetan zein egunetan hasi den gauzatzen jakinaraztea Udalari.
- b. Udalarri laguntzea herritarrei proiektuaren bilakaerari buruzko informazioa helarazten.
- c. Bere diru-funtzen jatorria agertu behar du bere jardueretan.

13.4. Salbuespen gisa, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzeko eskatu ahal izango diote onuradunek dirulaguntza eman duen organoari, baldin eta diruz lagundutako jarduera edo proiektua gauzatzea aldatzen edo zailtzen duten ezusteko zirkunstantziak agertzen badira, edo beharrezkoa bada jarduera behar bezala gauzatzeko. Eskabidea baimendu ahal izango da, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Jarduera egiteko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da eskabidea.

13.5. Funtsezko aldaketak. Era horretako aldaketek Tokiko Gobernu Batzarraren baimena beharko dute. Beraz, idatzizko eskaera formal bat aurkeztu behar zaio Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuari, proposatutako aldaketak argudiatzeko, aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak agertu eta berehala, eta proiektua egikaritzeko epea amaitu baino 45 egun baliadun lehenago gutxienez. Funtsezko aldaketak beharrezkoak izango dira kasu hauetan:

- a. Proiektuaren kokalekuaren edozein aldaketa.
- b. Proiektuaren xede-populazioaren aldaketa.
- c. Ezarritako helburuan (edo helburuetan) edo emaitzan (edo emaitzetan) egiten diren aldaketak.
- d. Proiektua egikaritzeko eraturako taldean gertatzen diren aldaketak.
- e. Aurrekontuetan egiten diren aldaketak. Aurrekontu-kapituluren batean dirulaguntzaren zenbateko osoaren ehuneko 7 edo gehiago gora edo behera egitea dakarren edozein aldaketa, edo dena delako kapituluaren ehuneko 50eko edo gehiagoko aldaketa.



13.6. Funtsezkoak ez diren aldaketak. Aurreko artikuluan jaso ez diren gainerako aldaketak egiteko, nahikoa izango da Garapenerako Lankidetzarako Zerbitzuari haien berri ematea idatziz.

13.7. Egikaritzeko epea luzatu ahal izango da, aldez aurreko baimenik behar izan gabe, gehienez ere hiru hilabetez. Epea amaitzeko hasierako epea amaitu baino lehen jakinarazi eta arrazoitu beharko zaio GLZri. Emendatze are handiagoak egiteko, organo emailearen aldez aurreko baimena beharko da, eta egikaritze-epea amaitu baino lehen eskatu beharko da.

13.8. Betebehar horiek ez betetzeak dirulaguntza osorik edo zati batean itzultzea ekarri ahalko du berekin, baita Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean adierazitako kasuetan ere.

13.9. Azpikontratazioa. Halakorik behar izatera, diruz lagundutako jarduera azpikontratatzea onartuko da, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean ezarritakoaren bidetik, honako berezitasun honekin: jardueraren ehuneko 100era arte azpikontratatzea baimentzen da dirulaguntzen ildo honetan.

14. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea

Justifikatu aurretik ordainduko da dirulaguntza, ordainketa aurreratu gisa. Aldi bakarrean ordainduko da, esleipen-ebazpena eman eta gero, inongo bermerik jarri beharrik gabe.

15. artikulua. Dirulaguntzak justifikatzea

15.1. Bukaerako txostena bakarrik aurkeztu beharko da —narrazioa eta finantzen azalpena—, hiru hilabetezko epean, ekintza bukatzen denetik.

15.2. Justifikatzeko modua justifikazio-kontu sinplifikatua izango da (Dirulaguntzen Ordenantzaren 35. artikulua). Justifikazio-kontu sinplifikatuaren barnean, hala, diruz lagundutako jarduerarekin lotuta egindako gastuen zerrenda joango da, honako hauek zehaztuta: faktura-zenbakia, jasotzailea/hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan eta ordainketa-data.

15.3. Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak, zerrenda horretan oinarrituta, gastu-egiaztagiriak hautatuko ditu, gutxienez emandako dirulaguntzaren % 40ra arte, eta pertsona edo entitatea onuradunari eskatuko dizkio.

15.4. Entitate onuradunek 4 urtez gorde beharko dituzte jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiriak, dokumentu elektronikoak barne, dirulaguntza justifikatzeko txostena aurkezten duten egunetik aurrera.

15.5. Txosten narratiboa eta justifikazio-oroitidazkiak Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak finkatutako ereduari jarraituz egin beharko dira, euskarri digitalean, eta dirulaguntza jasotzen duen entitatearen legezko ordezkariak sinatuta egon beharko dute. Zati narratiboa testu-prozesadorearen formatuan aurkeztu beharko da, eta zati ekonomikoa kalkulu-orriaren formatuan. Gainerako dokumentazioa edo materiala maneiatu, berrikusi eta editatzeko aukera ematen duen formatu digitalean aurkeztu beharko da, zer den ere —irudiak, bideoak, grabazioak, planoak...—. Digitalizatzea ezinezkoa bada, beste edozein euskarri fisikotan aurkeztu beharko dira.

15.6. Bidaia-gastuak eta dietak justifikatzeko, ohar bakar batean bilduko dira jarduerari edo pertsona berari buruzko gastu-justifikagiri guztiak.

15.7. Deialdi honetan emandako dirulaguntzak justifikatzeko eskatzen diren dokumentuak eskuragarri egongo dira Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/cooperacion) eta egoitza elektronikoan (<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/es/tramites>).

16. artikulua. Deialdian zenbatekorik sobera geratuz gero

Baldin eta, deialdi osoa ebazten delarik, erabilgarri dagoen zenbatekoa agortzen ez bada, soberakina 2450 2391 4 8200 “Lankidetzarako dirulaguntzak” partidaren kontura egitekoa den beste deialdi bati edo



Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuaren aurrekontuko IV. kapituluko beste partida bati esleitzeko izapideak egingo ahal izango dira.



1. ERANSKINA. GASTEIZEN EGITURA, GAITASUNA ETA JARDUERAK IZATEARI DAGOKION BETEKIZUNA

Gasteizen egitura, gaitasuna eta jarduera izateari dagokion gutxieneko betekizuna betetzeko, zehaztutako irizpideetan gutxienez lau puntu lortu behar dira.

Irizpideak beteko badira, gutxienezkotzat jotzen diren balio horietara iritsi beharko da.

“Egiaztatzeko moduak” zutabearen adierazten diren agirietakoren bat aurkeztuz egiaztatuko beharko da hori.

Irizpideak “Gutxienez” zutabearen ezarritakoa betetzen ez bada —edo egiaztagiririk aurkeztu ez bada—, puntuazioa zero izango da. "Esleipena" zutabearen zehazten diren irizpide bakoitzerako puntu posibleak.

1. eranskineko dokumentazio hori aldeztu aurretik —eskabidea egin aurretik— aurkeztu ahal izango da.

GASTEIZEN EGITURA, GAITASUNA ETA JARDUERA IZATEARI DAGOKION BETEBEHARRA				
Irizpideak	Gutxienez	Unitatea	Esleipena	Egiaztatzeko moduak
Eskabidea egiten duen entitateak Gasteizen du egoitza nagusia. Taldeek aurkeztutako eskabideen kasuan, hura eratzeko duten entitateetako gutxienez batek bete behar du irizpidea, eta eskabidea egiten duen entitatearen puntuazioari gehituko zaio.	Betetzen da		1	Entitatearen estatutuak, edo Eusko Jaurlaritzaren elkartearen edo fundazioen erregistroaren izena emanda egotea.
Boluntarioak hirian, 2025-01-01etik.	5	Boluntarioak	puntu 1, 5 boluntariotik 20ra badira. 2 puntu 20 boluntario baino gehiago badira.	Eusko Jaurlaritzaren Boluntariotzako Erakundearen Errolda Orokorrean egindako izen ematea, Araba Lurralde Historikoan. Edo, bestela, Boluntarioen aseguruia —indarrean dagoena— ordaindu izanaren egiaztagiria, non Araban aseguratu den boluntario-kopurua agertuko baita.
Langile teknikariak izatea hirian 2025/01/01etik.	Lanaldi erdiko kontratua		1	Gizarte Segurantzako kotizazioaren ziurtagiriak, non ageri den kontratatutako pertsona horiek Araban ari direla kotizatzen. Edo: Altan emanda dauden langileen txostena
Entitateak Hegoaldeko herrialdeetan 2025-01-01az geroztik egikaritu dituen proiektuetan Gasteizko boluntarioek lekuan bertan eman duten laguntza (gutxienez 20 egun urtean).	1	Pertsona, hileko	Puntu pertsona bateko edo biko 2 puntu 3 pertsona edo gehiago badira	Entitateak edo boluntarioak izenpetutako txosten laburra, orri bat edo bikoia —txartelen kopiarekin batera—, non profil pertsonala, laguntza eman zuen proiektua, tokia, aldia, zereginak, esperientziaren balorazioa eta beste azalduko baitira.



GASTEIZEN EGITURA, GAITASUNA ETA JARDUERA IZATEARI DAGOKION BETEBEHARRA				
Irizpideak	Gutxie nez	Unitatea	Esleipena	Egiaztatzeko moduak
2025-01-01az geroztik hirian jarduerak egikaritu dituzten sare edo taldeen kanpaina edo programa egituratueta izandako partaidetza.	15	Jarduera-orduak	1	Sare edo taldearen buru den entitatearen ziurtagiria, eskabidea egiten duen entitateak sare edo talde horretan parte hartu duen orduen kopurua zehazten duena.
Entitateak berak antolatutako sentsibilizazio- jarduera publiko aurrez aurrekoak, gasteiztarrei zuzenduak, 2025-01-01etik.	1	Jarduera publikoak	Puntu 1, 1-5 jarduerako 2 puntu 5 jarduera baino gehiago badira.	Dokumentazio grafikoa (argazkiak, bideoak, etab.), hedapen-materiala (kartelak, sare sozialetako iragarkiak, etab.), beste entitate antolatzaile batzuen ziurtagiriak... Hedabideetan artikulua edo elkarrizketak agertu edo argitaratzea ez da jardueratzat joko, ezta informazio-buletinen zabalkundea eta erakundearen publizitate-produktuak banatzea ere.
Esku-hartze sozialeko programa propioak: lan zuzenekoak, sistematikoak eta egituratua hirian gizarte-bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskua duten pertsonekin, 2025/01/01az geroztik.	1	Programa	1	Entitatearen estatutuak eta jardueren memoria, hirugarrenen ziurtagiriak, zabalkunderako materiala, etab.



2. ERANSKINA. BAREMOEN TAULA

Izartxo (*) batez markatutako kontzeptuetan betebeharra bete ez edo zero puntu lortuz gero, proiektua bazter geldituko da.

Eskakizunak			
Konpromiso-agiria aurkeztea (taldeen kasuan)	*		
Programazio bateratuko ekintzak (taldeen kasuan)	*		
Zabalkundean euskara erabiltzea	*		
Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna eta ikuspegi interseksionala	*		
Zehaztutako aurrekontu-mugetara egokitzea	*		
Hegoaldeko ikuspegiaren betekizuna	*		
Baloratuko diren alderdiak (ordena berean zerrendatu)		100	100
Gaiak			18
Gauzatzen ari diren urteko proiektu kateatuekin (UK, US) zuzenean lotutako proposamenak		10	
Egikaritzen dauden beste lankidetzak-proiektu batzuekin zuzeneko lotura duten proposamenak.		5	
Gida Plan luzatuan lehenetsitako ildo estrategikoei eta sektoreei lotuta		3	
Ikuspegia			8
Tokikoa-globala ikuspegia eta hegoaldeko ikuspegia		8	
Hartzaileak eta zabalkundea			14
Hartzaileak: definizioa, gaitasun biderkatzailea edo inplikaraztekoa, haiengana iristeko bermeak, aurreikusten den inpaktu kuantitatiboa		5	
Euskaraz egitekoak diren berariazko jarduerak		3	
Hirian errotutako ekitaldi edo programetan guztiz edo partez integratutako proiektuak		3	
Zabalkunde-sistemaren zehaztasuna eta egokitasuna		3	
Lankidetzak eta partaidetza			15
Baterako kudeaketa eta exekuzioa (taldeak)		5	
Hiriko beste kolektibo edo entitateen lankidetzak edo partaidetza (GGKE ez direnak)		4	
Migratzaileen kolektiboen lankidetzak edo partaidetza		3	
Boluntarioak mobilizatzea		3	
Proiektuaren kalitate teknikoa dela eta			22
Programazioaren eta jardueren garapenaren zehaztasuna eta koherentzia		10	
Hizlarien, egileen eta besteren esperientzia eta itzala		8	
Beharrezko diren bitarteko eta baliabideen zehaztasuna		3	
Jarraipen- eta ebaluazio-sistema		1	
Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna (edukiak eta garapena)		10	10
Aurrekontua			13
Aurrekontuaren xehetasun-maila eta kostuaren eta aurreikusitako inpaktuaren arteko koherentzia		8	
Jardueretara eta behar diren giza baliabide eta baliabide materialetara egokitasuna		5	

